

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2011ko otsailaren 22a. VIII. urtea. 2.178. zenbakia. [www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)

## 'Aitzol'-en heriotzaren urteurrenean euskal pizkundea omenduko dute

Jose Ariztimuño Olaso, 'Aitzol', Tolosan jaio zen 1896. urtean; euskalgintzaren alde lanean aritzeagatik, 1936. urtean fusilatu zuten faxistek Hernanin

Tolosan nahiz Euskal Herri osoan egingo dituzte omenaldi ekitaldiak; martxoaren 18an, 'Aitzol'-en jaiotetxean bere omenezko plaka bat jarriko dute ◦2

### AHT Gelditu! Elkarlanak manifestazioa antolatu du Tolosan

Martxa hilaren 26an, larunbatean, izango da eta 17:00etan irtengo dira Trianguloatik ◦3

### Ezker abertzaleak herri programak osatzen jarraitzen du

Amasa-Villabonan eta Zizurkilen herritarrak parte hartzeri gonbidatu dituzte euren iritziak biltzeko ◦4

### Maider Mendizabal Kutxa Sariaren finaletik kanpo gelditu da ◦6



### → Lizartzako herritarrek udal ordezkari berriak aukeratu dituzte.

Ihauterien lehen egunean, ohiturari jarraituz, herritarrek korporazio berria aukeratu zuten. Ospakizunek ordea, etenaldia izango dute orain eta jaiak hilaren 25ean jarraituko du. Larunbatean, udal ordezkariekin batera dantzariak eta antzerkia ikusteko aukera egon zen Lizartzako frontoian. ◦5

[www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)

herrietako informazioa inoiz baino gertuago  
ezagutu gure webgune berriak

[www.ibarraldea.hitza.info](http://www.ibarraldea.hitza.info) • [www.alegialdea.hitza.info](http://www.alegialdea.hitza.info) • [www.anoetaldea.hitza.info](http://www.anoetaldea.hitza.info) • [www.villabona-aiztondo.hitza.info](http://www.villabona-aiztondo.hitza.info)  
[www.leitzaldea.hitza.info](http://www.leitzaldea.hitza.info) • [www.tolosa.hitza.info](http://www.tolosa.hitza.info)



Euskal Herriko hamazazpi eragilek sinatu zuten aldarria, Tolosako Udalarekin batera. HITZA

# ‘Aitzol’ eta bere belaunaldia omenduko dute euskal eragileek

Urte guztian zehar antolatuko dituzte euskal pizkundea loratu zuten haiek omentzeko ekitaldiak

Jose Ariztimuño ‘Aitzol’ en fusilamenduaren 75. urteurrenaren inguruan sortu da ideia

## Itzea Urkizu

Joan den larunbatean *Aitzol Euskal Pizkundean urteurrena* ekimena aurkezteko, agerraldia egin zuten udaletzeko batzar aretoan, Euskal Herriko hainbat eragilek. Ekimenerako Anjel Lertxundik idatzi eta bertan irakurri zuen aldarria sinatu zuten, beste eragileei eta herritarrei ekimenarekin bat egiteko deia luzatuz.

Datorren urriaren 17an 75 urte beteko dira Jose Ariztimuño Olaso, *Aitzol*, Hernaniko hilerrian fusilatuta zutela, eta efemeride hau

aitzakiatzen hartuz, «*Aitzol* eta bere belaunaldia gogora ekarri eta omendu» nahi dute hamazazpi eragile hauek. Horrela beraz, 2011. urtea Euskal Pizkundean urtea izango da. Besteak beste, *Aitzolek* eta euskal pizkundean beren ekarpena egin zuten gizon-emakumeek egindakoa ekarriko dute gogora, eta aldarri moduan zabalduko dute.

## Eragileen babes

Tolosako Udalaz gain, Euskal Herri osoko beste hamazazpi eragiletako ordezkariak sinatu zuten al-

darria: Eusko Jaurlaritza; Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak; Donostia, Zarautz, Mungia, Hernani eta Baztango Udalak; Euskaltzaindia; Eusko Ikaskuntza; Euskal Herriko Unibertsitatea; Sabino Arana Fundazioa; Aranzadi Zientzia Elkarteak; Ipar Euskal Herriko Euskal Kultur Erakundea; Nafarroako Euskara Kultur Elkargoa eta Bertsozale Elkarteak. Eragile hauetariko bakoitzak bere erara eta bere aldetik parte hartuko du urteurreneko ospakizunetan.

## Tolosatik Euskal Herrira

Euskararen eta euskal kulturaren alde lan egin zuten belaunaldi hau omentzeko ideia Tolosan sortu da, hain zuzen ere, pizkundeko hainbat eragile tolosarrak izan zirelako, eta beste hainbatek harreman zuzena izan zutelako herria-

rekin. Horrela beraz, Lizardi, Lauaxeta, Antonio Maria Labaien, Doroteo Ziaurriz, Ixaka Lopez Mendizabal, Orixe, Jautarkol, Pio Montoia, Jakakortajarena, Uzturre, Pilar Sansinenea, Lupe Urkiola, Tere Urkiola, Jesus Elozegi, Joxe Izagirre, Xebe eta Xabier Peña, Iñaxi Munita, Dolores Arbila eta Ramon Larrañaga izan ziren, besteak beste, ekitaldian aipaturiko izenak.

Urteurrenaren baitan Tolosan ospatuko diren omenezko ekitaldiatariko batzuk aipatu zituen Jokin Bildarratz alkateak. Datorren martxoaren 18an, esaterako, *Aitzolen* jaiotzaren 115. urteurrena izango da, eta hori ospatzeko bere jaiotetxea izan zen Gorosabel kaleko 12. zenbakian oroimenezko plaka bat jarriko dute. Egun berean, gainera, *Aitzol* Udala Euskaltegiak eta euskara

erakundeak bat eginda Euskararenean erakundearen izenean, *Aitzolen* testuen irakurketa izango da egun osoan zehar. Era berean, martxoaren 19an Tolosako neska-mutilek zuhaitzak landatuko dituzte Elozegi parkean, urriaren 16an irekiko den *Zintzoen basoan* euren alea jarri. Berdegune hau *Aitzolen* eta bere belaunaldiko kideen txokoa izango da. Azkenik, San Joan egunean euskal pizkundeko eragile nagusienetarikoa, eta halaber Tolosako alkateak izan ziren Antonio Maria Labaien eta Doroteo Ziaurrizi omenaldi berezia egingo zaie. Horretaz gain, urtean zeharreko kultur ekitaldiak ere *Aitzol* eta euskal pizkundean ingurukoak izango dira.

Esan bezala, ekimenarekin bat egin duten Euskal Herriko gainerako erakundeek ere ekitaldi desberdinak antolatuko dituzte euren aldetik. Honen guztiaren berri zuzena herritarrei helarazteko, [www.euskalpizkundea.net](http://www.euskalpizkundea.net) webgunea zabalduko dute.

## Belaunaldiaren ondorengoak

Antonio Maria Labaien tolosarra pizkundeko eragileetarikoa bat izan zen, eta antzerkigile bezala ere ezaguna da. Pasa den larunbateko aurkezpenean, bere semea Ramon Labaienek eskaini zituen hitzik hunkigarrienak, bera mutikoa zen pizkunde-garai hartako pasadizoak kontatuz. «*Aitzol* pizkundean indar nagusia» izan zela esanez hasi zen, eta «bere fusilamenduaren berria iritsi zitzaidan» nabarmendu zuen. «Bihotza gogortu zitzaidan». Belaunaldi hartako gizon-emakumeek «giro beltz

## Labaien: «Sustraiak Euskal Herrian, eta adarrak mundu zabalean zitutzen»

hartan posible izan zitekeen zerbaitekin zuten fedea eta itxaropena», eta «etorkizunera nahiz iraganera begiratu zuten».

Bide beretik, *Aitzol* eta bere aitaren batera pizkunde hura sortzen lan egin zutenei buruz dituen oroitzapenak deskribatu zituen hitzaldian: «Kosmopolitak ziren pizkundeko kideak, eta sustraiak Euskal Herrian eta adarrak mundu zabalean zitutzen». Azkenik, euskararen eta bere inguruko kulturaren transmisioa eta mantentzean ikastolek izan zuten ezinbesteko papera nabarmendu nahi izan zuen Labaienek, «ikastola iraultza berriaren lehen pausotako bat eta euskararen atzerakada desagerrarazi zuena» izan zela adieraziz. Ramon Labaienek itxaropena duela esanez amaitu zuen, «jendea hor dagoe-lako, hor zaudetelako».

Ekitaldia Amaia Agirrearen bertso batzuekin amaitu zen, txalo zaparrada artean.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Ramon Labaienek senideen izenean hitz egin zuen. HITZA



Prensaurrekoa Tolosako Ugane auzoko obretan eman zuten. A. IMAZ

## AHTren aurkako manifestazioan parte hartzeko deia egin dute

Martxa larunbatean, Kaldereroen Egunean, 17:00etan abiatuko da Tolosako Trianguloa plazatik

**M. Ugartemendia** Tolosa

Urtero bezala, aurten ere Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlaneko kideek dei egin zuten Kaldereroen Egunean, hilaren 26an, 17:00etan Tolosan egingo den Abiadura Handiko Trenaren aurkako manifestazioan parte hartzeko. Horretarako, prentsaurreko bat eman zuten joan den larunbatean, Tolosako Ugane auzoko obretan.

Tolosaldean orain dela urtebete inguru hasi ziren lanekin. Obren mugimendu handiena Aldaba, Aldaba Txiki eta Alegian dagoen arren, proiektua leku guztietan doa aurrera eta une honetan Tolosa-Hernialde zatian ere desjabetze prozesuan daude. Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanekoen hitzetan, «Tolosa-Hernialde zatian, proiektuari aurka egiteko prest dauden lurjabe bat baino gehiago dago», baina «zaila zaie bakarrik aurre egitea».

Gainera, Alegiako Eguzkitza zabortegiko egoera ere adibide moduan jarri zuten, bertan, «behar den bezalako lizentziarik gabe ari baitira betelanak gauzatzeko». Gauzak honela, Alegiako eta Tolosako Udalek beraien ar-

dura dutela esan zuten. Hau ez da erraza izan Alegian, «informazio ezaren eta interes orokorraren arrazoiengatik, besteak beste». Hala eta guztiz ere, udaletik hainbat oztupo ezarri omen dituzte proiektuari aurre egiteko. Aldiz, Tolosako Udalak ezer ez duela egin salatu zuten, Tolosako Udalak «informazioa izan du eta ez du kaleratu» eta «Tolosa-Hernialde zatiko Eraikuntza Proiektua ez dio plazaratu herriari».

Guzti hau salatzen manifestazioan parte hartzeko deia luzatu zuten Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlaneko kideek, larunbateko prentsaurrekoan. Manifestazioa hilaren 26an izango da, 17:00etan, eta Tolosako Triangulotik abiatuko da.

## ‘Luze’ eta ‘Zili’ azken laurdenetako puntuazioen zain daude

Larunbatean, Nafarroako Bertsolari Txapelketan aritu ziren Elosegi eta Barberia leitzarrak

**M. Ugartemendia** Leitza

Larunbatean abiatu zen aurten go Nafarroako Bertsolari Txapelketa Tafallan, eta bertan izan ziren Miel Mari Elosegi, *Luze*, eta Jose Luis Barberia, *Zili*, leitzarrak. Giro ederra izan zen, 120 lagunek ikusi baitzuten maila ona eman zuen saioa. Sei bertsolari aritu ziren oholta gainean. Saioren amaieran Xabier Terreros

lesakarrak bildu zituen puntu gehien, zehazki 313 puntu. Bigarren postua, Ander Fuentes, *Iturrirrentzat izan zen*, 307 punturakin. Hirugarren gelditu zen Miel Mari Elosegi, *Luze*, leitzarra, 292,5 punturakin. Atzetik Ainhoa Aranburu 277rekin, Jose Luis Barberia, *Zili*, leitzarra 258rekin eta Egoitz Gorosterraza 253rekin sailkatu ziren.

**Finalurrekoa Leitza**

Xabier Terreros zuzenean sailkatu zen Leitza martxoaren 19an jokatu den finalurrerako. Elosegi eta Barberiak azken laurdenetako puntuazioen zain egon beharko dute, finalurrekoan egonen diren ala ez jakiteko.

## Irudia ◊ Tolosa



## ARMERIA PLAZA BERRITUA

Armeria plaza berritua atzo inauguratu zuten. Ekitaldia 17:30ean hasi zen Tolosako udal ordezkarien prentsaurrekoarekin. Ondoren, eguraldi bustiari aurre egiteko eta inauteriak ia gainean ditugulako, txistorra pintxoak eskaini zizkieten bertaratu zirenei. Bertan izan ziren, besteak beste, Jokin Bildarratz Tolosako alkatea eta baita Gobernuko ordezkariak ere. MU.

## 849.000 euroko inbertsioa gizarte arreta hobetzeko

Estualdi ekonomikoan bizi diren pertsonen eta hirugarren adinekoen arreta berezia jasoko dute Ibarra

**M. U. Ibarra**

Ibarra Udalak ekitaldi honetan 849.000 euro bideratuko ditu herriarren beharrei erantzun dieten zerbitzuei eusteko eta berriak sortzeko. Honela, ibarrei

zuzendutako gizarte arreta hobetuko delarik. Udaleko Gizarte Zerbitzuen Sailak arreta berezia eskainiko die hirugarren adinekoen eta estualdi ekonomikoan bizi diren pertsonen.

Aurtengo urterako prestatutako aurrekontuaren bidez, Ibarra Udalak eutsi egingo die orain arte «erantzun ona» jaso duten zerbitzuei, eta sortu diren arrisku egoera berriei aurre egiteko beste neurri batzuk ezarriko ditu, «Ibarra Udaleko gizarte arretarako arazoak arintzearen». Erronka

horrekin bat egin du Ibarra Bizi Nahi erretiratu elkarteak, 25.850 euroko ekarpenarekin, instalazioak mantentzeko eta hainbat ekintza antolatzeko.

Udalak dauzkan aurreikuspenei dagokionez, inbertsioetara zuzendutako kopuruaren zati handi bat adinekoen etxean laguntzera bideratuko du. Asmo horretara 203.000 euro zuzendu ditu zehazki. Pobreziaren Aurkako Plan Integralak, berriz, 96.000 euro jasoko ditu. Adinekoak bizi diren etxeetan suteak prebenitze-

ko iaz inauguratutako zerbitzuak «oso emaitza onak izan dituzenez eta herritarrek harrera bikaina egin diotenez», udalak zerbitzu horri eustea erabaki du. Bertara 22.000 euro bideratuko dituelarik Adinekoekin lotuta, haien beharrik hautemateko azterlan bat eginaraziko du Ibarra Udalak eta 6.100 euroko aurrekontua finkatu du horretarako.

Gizarte Ongizateko Sailak ezarritako laguntzak beharrezko diren beste talde batzuetatik ere badira, haien egoera hobetzeko.

Hala nola, familian prebenitzeko, tasak salbuesteko edota erretiratu laguntzeko. Beste alde batek, aurrekontuaren %1a garapen bidean dauden herrialdeetara bideratutako hartutako konpromisoarekin jarraituz, Ibarra Udalak 42.462 euro zuzenduko ditu helburu horretarako.

Gizarte Zerbitzuen arloari dagokionez, nabarmentzekoa da Zuzkidura Eraikinaren proiektua. Hau gauzatzeko, 349.920 euroko aurrekontua prestatu du Ibarra Udalak.

**→ Laburrak****Festa batzordearen bilera gaur 19:00etan**

**IRURA** > Irurako Udalak, festa batzordeko partaide guztiek bilera egingo du gaur 19:00etan. Udaletxeko Batzaraldi Aretoan egingo dute eta bertan jorratuko diren gaiak hauek izango dira: Korrika 17; Kaldereroak 2011, otsailaren 25ean Iruran; Emakumearen eguna eta kirol eta kultur astea. Herritar guztiak gonbidatuta daude bileran parte hartzera.

**Istripua izan eta ihes egin ostean atxilotu dute**

**IKAZTEGIETA** > Igande gauean gertatu zen istripua Ikaztegieta-ko birbilgunean. «29 urteko gazteak, istripua izan ostean, Peugeot 306 autoa bidea oztopatuz utzi eta ihes egin zuen». Baina ordu erdi geroago eta istripua izandako lekutik kilometro batera aurkitu zuen gaztea Ertzaintzak. Alkoholemia proban positibo eman zuen eta atxilotuta eraman zuten.

**Emakumearen eguneko afari txartelak salgai**

**ALEGIA** > Emakumearen eguna dela eta, Alegiako kultur batzordeak emakumeen afaria antolatu du azken urteetan bezala. Afaria, martxoaren 12an larunbata, Hilario Berri tabernan izango da 21:00etan. Txartelak salgai 20 eurotan egongo dira Alegiako kultur etxean, martxoaren 4a bitartean.

# Amasa-Villabonan eta Zizurkilen herri programak osatzen hasi dira

Udal hauteskundeak direla eta, ezker abertzaleak euren herri programak garatzeko bideak ezagutarazi ditu

**Erredakzioa**

Maiatzaren 22an izango dira udal hauteskundeak eta eskualdeko herrietan dagoeneko hasi dira herri programak prestatzen. Horren berri emateko, ostiral arratsaldean, Zizurkilgo ezker abertzalea herriko udaletxearen aurrean bildu zen; «pleno aretoan gauzatzeko asmoa genuen baina kanpoan gaude aretoa erabiltzea ukatu egin digutelako».

«Egoera antidemokratiko» hau gaindituz, hurrengo urteetan udaletxea herritarren beharrak entzuteko plaza bilakatu nahi dutela adierazi zuten. Argi eta garbi utzi zuten: «herritarren ahotsa gure hitza izango da. Herri programa garatze aldera, dinamika ireki eta parte hartzaile baten aldeko apustu sendoa egiten dugu. Ildo nagusienak, herritarren partaidetza eta elkarlana izango dira».

Iritzia eta kezak biltzeko, jar-duera ezberdinak garatuko dituzte: herriko giza eragileekin elkartuko dira; Auzolan dinamika bultzatuz, bizilagunekin harremanak estutuko dituzte eta herritar guztien ekarpenak jasotzeko baliabideak eskura jarri eta



Zizurkilgo ezker abertzaleak udaletxearen kanpoan bildu behar izan zuten herri programa aurkezteko. E. MAIZ

herritarrei informazioa itzultzeko konpromisoa hartuko dute.

Hurrengo egunetan, herritarrek etxean inkesta bat jasoko dute. Eta herritarren ahotsa jasotzeko postontziak, Atxulondo eta Zentroa tabernetan eta Bulandegi bideko bulegoan jarri dituzte. Era berean, [zizurkil.herriprograma@gmail.com](mailto:zizurkil.herriprograma@gmail.com) helbidea eta 634 407 058 telefono zenbakia herritarren eskura jarri dituzte. Eta [www.herriprograma2011.net](http://www.herriprograma2011.net) web orria ere prestatu dute.

«Iritzi guztiak garrantzitsuak direlako, martxoaren 12a bitarte gurekin harremanetan jartzeko bideak izango dituzte: Bulandegi bidea 8 behean, herri bulegoan jarri dugu. Astelehenerdik ostiralera, 17:00etatik 20:00etara eta larunbatetan, 10:00etatik 13:00etara egongo da zabalik».

**«Zure ahotsa, gure hitza!»**

Zizurkilen egin bezala, Amasa-Villabonako ezker abertzaleak ere datozen aste eta hilabeteetan egingo duenaren berri eman zuten

larunbat eguerdian. Gaur egungo udal ordezkariekin batera, herritar talde bat elkartu zen.

Herritarren ahotsa jaso ahal izateko bitartekoak jarriko dituzte esan zuten Amasa-Villabonako ezker abertzaleak. Horregatik, herri programaren osaketarako, abertzale, ezkertiar eta independentisten parte-hartzea bilatu nahi dute. Euren helburua den artean hauteskundeetarako herri programa osatzea da. «Hitza betetzen dugulako», jadanik martxan dauden bitartekoen zerrenda aipatu zuten.

«Dagoeneko herri diagnostia egin dugu eta hau, hamarnaka herri eragilerekin konpartitu dugu, Villabonako ikuspegi ahalik eta zabalena lortzeko helburuarekin» adierazi zuten.

«Hilaren 22an herri programa definitzen hasiko gara batzar ireki baten bidez. Hemendik apirilaren 29ra arte, astero bilduko gara ahalik eta herri programa zabal eta definituena egiteko asmoz. Etor zaitezte, eman zuten iritzia,

eztabaidatu eta Amasa-Villabona hobeago bat egiten lagundu ieza-guzuz» azpimarratu zuten.

Hilaren 21etik martxoaren 12ra herriaren inguruko eta herritarren hausnarketak helarazteko inkesta bat pasako dute. Herritarren euren iritzia emateko eskatu diete. Inkesta hauen erantzunak jasotzeko postontziak ipiniko dituzte. BM, Eroski, Olaederra Kiroldegia, Anbulategia, Haur Eskola, Zinema, Xaldu eta Amasako Kultur Etxe inguruan kokatuko dituzte.

Herri programarekin amaitzeko, apirilaren 9an udal jardunaldiak egingo dituzte «programa behin betiko definitu dezagun» helburuarekin. Eta bukatzeko, «gogoratu [www.herriprograma2011/billabona](http://www.herriprograma2011/billabona) webgunean, diagnostia, programa, batzar... buruzko informazio guztia izango duzula». Herri programa garatzeko, krisia, euskara, emakumeak, amalurra, gazteak, Euskal Herria, ... kontuan izango dituztela ere nabarmendu zuten.



Amasa-Villabonako ezker abertzalea larunbatean elkartu zen herri programaren berri emateko. HITZA

PREST  
**m**  
MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA

## ATE IREKIAK

**Enpresagintza Fakultatea**

**OÑATI OTSAILAK 24**

osteguna, 18:00

**IRUN MARTXOAK 3**

osteguna, 18:00

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea**

**ESKORIATZA MARTXOAK 3**

osteguna, 18:00

ARETO  
NAGUSIAN  
Etorri aurretik  
izena eman!

902 110 436

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

**Lizartza** ◊**ASTEBURUAN BERREKINGO DIETE IHAUTERIEI**

Lizartzako Ihauteriak larunbatean hasi ziren, nahiz eta lehen egun horrek jarraipenik ez zuen izan igandean. Egurdian, udal ordezkari berriak aukeratu zituzten eta hauek, antzerkiak eta herriko dantzarien saioak goza-

tzeko aukera izan zuten. Ihauteen lehen egunean, gibelatatzeko aukera ere egon zen. Hilaren 25etik 27ra jaiaren bigarren zatia ospatuko dute Lizartzan. Ostiralean, 14:15ean, eskolak antolatuta mozorro festa egongo

da eta ondoren, kalejira. Larunbatean 07:00etan ekingo diete Ihauteriei. Egun guztiko egitarauaren barruan, gurdi eta mozorroen kalejira azpimarratu behar da. Azkenik, igandean erreko dute *Ijitoa*. A.I.MAZ

**Udaletxeko tramiteak on-line egin ahal izango dira****I. Urkizu** Tolosa

Tolosako Udaleko web orria berrituta dator. Hemendik aurrera herritarrek tramiteak on-line egiteko aukera izango dute [www.tolosakoudala.net](http://www.tolosakoudala.net) helbidean. «Bizimodu eta garai berrien aurrean erraztasunak eman» beharraz aritu zen alkatea, webgune berrituaren aurkezpenarekin. Orain

artean gestio gehienak internet bidez egiteko aukera bazen arren, udalarekin ez zela halakorik nabarmendu zuen.

Gipuzkoako Foru Aldundiak udalei eskaintzen dien IZFE plataformari esker, ziurtagiriak lortu ahal izango dira, obra eskaerak burutu, eta espedienteak internet bidez jarraitu, besteak beste. Hau guztia egin ahal izateko, udalak

berme juridikoak eman behar izan ditu, eta ezin izango du edonork edozein modutara sisteman sartu. NAN digitala, ONA txartela edo IZENPE txartela duenak sarbidea izango du, gestio guztietarako sinadura digitala emanez. Txartel digitalik ez duen herritarrek udalarekin harremanetan jarri beharko du, beharrezkoa izango duen pasahitza lortzeko.



Jokin Bildarratz eta Xabier Telleria aurkezpen ekitaldian. I. URKIZU


**harpidedun izateak badu saria****1 Otordua**

Tolosa • Tel.: 943-67 26 13

Tolosako **Eguzkitza** sagardotegian 2 pertsonentzako otordua

**2 2 disko****The 44 Dealers**

taldearen Welcome to the big fat and greasy blues soul diskoaren bi ale

**3 Sarrera parea****LAGUN ARO GBC**  
**Assignia Manresa**

saskibalo partida



Otsailak 27 • Igandea 17:00etan Donostiako Ilunben

**4 Sarrera parea**

**Bebek** eskainiko duen kontzerturako sarrera pare bat



Martxoak 11 • Ostirala 20:30ean Tolosako Leidorren

Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunean, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

harpidedunen **TXOKOA hitza** info

**Kirolak**

**↓ Emaizak**

**PILOTA**

<b>BINAKAKO TXAPELKETA</b>	
Xala-Barriola	22
Saralegi-Beloki	8
Irujo-Merino II	22
Bengoetxea VI.a-I. Zabala	15

**Bigarren maila**

Rico IV-Argote	22
Jaunarena-Larrinaga	14
Diaz-Iza	17
Olazabal-Galarza	22
Apezetxea-Cecilio	18
Olaetxea-Albisu	22

**BERRIA TXAPELKETA**

<b>Kadeteak</b>	
Lagun Onak	1
Zazpi Iturri	22
<b>Jubenilak</b>	
Lagun Onak	7
Zazpi Iturri	22
<b>Nagusiak</b>	
Lagun Onak	22
Zazpi Iturri	19

**EUSKAI HERRIKO TXAPEL**

<b>Finalerdiak</b>	
Adiskide elkarte	20
Urbietza-Telletea (A-S)	22
Mugika-Iruretagoiena (A-S)	22
Usansolo elkarte	21
Irribarria (Zazpi Iturri)	7
Tolosa (Gazteleku)	18
Jaka (Zazpi Iturri)	22
Erostarbe	10
Elezkano- Larunbe (Adisk.)	22
Nazabal-Artola (Intxurre)	7

**EMAKUMEZKOEN KUTXA**

<b>SARIA - GOMAZKO PALETA</b>	
<b>Finalerdiak</b>	
Espinar-Ruiz de Larramendi	30
Muneta-Graciet	25
Caset-Mendizabal	20
Muneta-Graciet	30

**SASKIBALOIA**

<b>LEHEN MAILA</b>	
<b>18. jardunaldia</b>	
Take Bide Bide Ibiza	82
Fincas Bilboetxe La Peña	72

**SOKATIRA**

<b>EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA - 600 KILO</b>	
<b>Lehen jardunaldia</b>	
1. Sokarri (8 puntu)	
2. Amairu (7 puntu)	
5. Ibarra (4 puntu)	

**FUTBOLA**

<b>ERREGIONAL OHOREZKO MAILA</b>	
<b>23. jardunaldia</b>	
Tolosa	2
Idiazabal	0

**Saillkapena**

1. Hernani (51 puntu)
1. Pasajes (50 puntu)
<b>8. Tolosa (35 puntu)</b>

**ERREGIONAL PREFERENTE**

<b>MAILA</b>	
<b>21. jardunaldia</b>	
Tolosa B	4
Urnietza	2
Intxurre	1
Urola	1

**Saillkapena**

1. Elgoibar (45 puntu)
<b>8. Tolosa B (30 puntu)</b>
14. Intxurre (19 puntu)

**ARETO FUTBOLA**

<b>NAZIONAL A MAILA</b>	
<b>19. jardunaldia</b>	
Lauburu Ibarra	3
Kirol Sport	2

**NAZIONAL B MAILA**

<b>19. jardunaldia</b>	
Soloarte	6
Laskorain Ikastola	3
Irish Pub Sheperd	3
San Jorge Santurtzi	1
Jarrilleros	4
Transportes Lakunza	1

**EUSKAL LIGA**

<b>19. jardunaldia</b>	
Eskoriatza	4
Hirukide Tolosala	2

# Mendizabal ez da sailkatu Kutxa Sariaren finalerako

Anoetarrak Caset bikotearekin 20-30 galdu zuten Etcheleku eta Montes en aurka Alegiako frontoian



Mendizabal pilota jotzen partidaren une batean. HITZA

**Erredakzioa**

Maidar Mendizabalek ez du lortu Kutxa Sariaren finalerako sailkatzea. Frontoi Motzeko Emakumeen Gomazko Paletaren txapelketaren finalerdia jokatu zuen Alegiako Caset bikotearekin batera Etcheleku eta Montes en aurka. 20-30 galdu zuten partida eta, beraz, hirugarren eta laugarren postuak erabakiko dituen partida jokatu beharko dute larunbatean Tolosan.

Oso partida borrokatua izan zen, 50 pilotakadatik gorako tantu bat baino gehiago izan baitziren. Hasiara parekatua izan ba-

zen ere, Etcheleku eta Montes pixkanaka tartea irekitzen joan ziren eta horrek Mendizabali eta Caseti arriskatzera behartu zien. Baina ez zuten zortea alde izan. Beste finalerdian Espinar eta

Ruiz de Larramendik 30-25 irabazi zieten Muneta eta Graciet. Beraz, azken bikote honen aurka jokatu du Mendizabal anoetarrak eta Casetek larunbatean Beotibarren.

# Laskorain punturik gabe itzuli da Basauritik Soloarteren aurka galduta

**Gorka Amatriain** Tolosa

Bolada bikainean den eta ligako jokorik erakargarriena egiten duen Soloarte talde indartsuaren aurka neurtu zituen indarrak Laskorainek pasa den jardunaldian eta 6-3 galdu zuten Basaurin jokatutako partida. Taldeko baja ugariak estaliz, bigarren astez jarraian lan bikaina egin duen Josuk eta lehenengo aldiz deialdian sartu den Beñat Balerdik osatu

zuten deialdia. Partidaren lehenengo zatia etxeokoa izan zen nabarmen. Gol aukera gehiegi izan ez bazituzten ere, baloia jabetzan nagusi izan ziren eta Endikaren ate ingurura iritsitakoan zorroztu asmatu zuten. Atsedendira 3-0 argi batekin iritsi zen norgehiagoka.

Partidak oso tankera iluna zuten arren, Laskorainek ez zuten inongo unetan etsi eta bigarren zatiak beste itxura bat izan zuten.

Defentsa lerroa aurreratu eta kantxa osoko presio gogorra eginez Laskorainek bere minuturik onenak eman zituen. Azkenean, baina, ez zuten partidari buelta ematea lortu.

Lehen itzuli borobila osatu eta gero kaskar xamar hasi du Laskorain Ikastolak bigarren itzulia. Azken hamabi puntuetatik lau soilik poltsikoratu eta gero erreakzionatu beharrean dira gure mutilak.

**Hilberriak**

**MARIA ROSARIO BERAZA LEIBAR**  
(NIKASIO URKIZUREN ALARGUNA)  
Otsailaren 21ean hil zen, 87 urte zituela, Elitzakoak eta Alta Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.  
- Goian bego -  
Seme-aleak: Josemari eta Dina Leunda, Marcelino, Agustín, Begofia, Juan Jose eta Edurne Mujika, Milla eta Miguel Oiarbide, Ramon eta Arantza Balerdi, Ana eta David Eloi; bilobak: Oiala eta Arnaluz, Iker, Ion, Mikel eta Miltane, Altzi, Oihans, Egoitz, Oier, Andoni; anai-arrebak: Julita, Mari (†), Gonzalo, Jose Luis (†), Milagros; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehenegusak eta gaherako ahaldeak.  
Haren animaren alde, otoitz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezela, **GAUR ASTEARTEA** arratsaldeko **ZAZPIETAN**, Anoetako **SAN JOAN BATAIATZALEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.  
Anoetan, 2011ko otsailaren 22a  
Helbidea: Etxeberri baseria.  
Oharra: Gorputz bella Tolosako **FUNERARIA ORIA TANATORIOAN** egongo da, **GAUR ASTEARTEA** arratsaldeko 17:15ak arte.

**JUAN MARI GARMENDIA AGIRRE**  
(Belauntzako Udaleko zinegotzia)  
DOLUMINAK BELAUNTZAKO UDALAREN PARTETIK  
Belauntzan, 2011ko otsailaren 22a

**ESKELAK**  
943-65 56 95  
tolosaldean@hitza.info

**HILETAREN BALIOA Txina Inperiala**  
Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakotzak bere neumiko hileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.  
Berreskurazena da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.  
**FUNERARIA VASCONGADA** EHORZKETAK  
902 402 900  
www.funerariavascongada.com

## Zazpi Iturri elkarteak aurrera egin du Berria Txapelketan

Kadeteetan eta jubeniletan erraz irabazi zuten amezketarrek eta nagusietan gutxigatik galdu zuten

**Imanol Garcia** Amezqueta

Zazpi Iturri elkarteak lehen kanporaketa irabazi du Berria Txapelketan eta final laurdenetara pasatu da. Zornotzako Lagun Onak elkarteak izan du aurrez aurre eta kadete zein jubenilen partidak erraz irabazi ondoren, tanto gutxigatik galdu zuten nagusien partida.

Xalton Zabala Zazpi Iturriko arduradunak azaldu duenez, «ondo joan zen norgehiagoka, uste baino errazago irabazi genuen». Gakoa lehen partida izan zen. Kadeteetan 1-22 irabazi zuten Altunak eta Iribarriak. «Seriotasuna eskatu nien eta oso ondo

erantzun zuten», dio Zabalak. «Ez zuten akatsik egin. Aurkariek lortutako tanto bakarra gantxo izugarri baten ondoren izan zen. Gure bikoteak horrela jokatu bagenekien besteek ez zutela aukerarik izango».

Jubeniletan ere espero zuten irabaztea. Kadeteen partidaren ondoren kanporaketa bideratuta zegoen eta lasai jokatu zuten Gailurralde eta Jakak. 7-22 bukatu zen eta zazpi tantoetatik bost amezketarren aurrelariaren opariak izan zirela dio Zabalak. «Kadeteek horrela irabazita, errazago da jokatzeara», gaineratu du Zazpi Iturriko arduradunak.

Hirugarren partidari errespetu handia zioten amezketarrek, are gehiago Zornotzako pilotalekuko aldageletan Berasaluze IX.a eta Galarza VI.a ikusi zituztenean. Ropon eta Garmendia aritu ziren Zazpi Iturrikoen aldetik eta atzelariak «sekulako partida» jokatu zuela azaldu du Zabalak. «Lan

asko egin behar izan zuten Garmendiak. Besteek partida irabazi nahi zuten eta ahalegin handiz aritu ziren».

### Txapeldunen aurka

Hurrengo norgehiagoka Galdakaoko Adiskide elkartearen aurka izango dute. Iazko txapeldunak dira bizkaitarrak eta horregatik oso borrokatua izango da final laurdenetako neurketa.

Zabala gustura dago lehen neurketan egindako lanarekin eta orain erreferentzia badutela dio hurrengorako. «Kadeteak eta jubenilak euskal ligan aritu dira lehiazten, baina Garmendiak partida gutxi jokatu ditu. Gustura gabilta gure jokoarekin eta ilusioarekin joango gara».

Galdakaon jokatu dute norgehiagoka eta materialaren inguruan kezkatuta dago Zabala: «Berriak aukeratzeko dituzte pilotak. Ikusi beharko dugu zer material jartzen duten».

## Olaberriak bosgarren postua lortu du omnium proban Munduko Kopan

Inglaterra jokatu dute asteburu honetan proba; ikaztegiatarra erlojuaren kontrakoetan maila onean dabil

**Erredakzioa** Ikaztegieta

Leire Olaberriak Manchesterren (Inglaterra) jokatu dute Munduko Kopako omnium proban bosgarren postua eskuratu du. Asteburuan lehiatu da ikaztegiatarra eta lehen egunean hamargarren bukatu bazuen, bigarren egunean bosgarren posturaino igotzea lortu zuen.

Forma onean dabilela erakutsi du Olaberriak, erlojuaren kontrako probetan emaitza onak lortu baitzituen. Hirugarrena izan zen

jazarpen proban eta laugarrena 500 metroetan. Scratch-ean baina, ez zen hain fin aritu eta hamabigarren amaitu zuen. Orotara 52 punturekin bukatu zuen, laugarren postutik puntu batera eta hirugarrenetik hamarrera.

Juan Martinez Oliver Espainiako selekzioaren hautatzaileak esan duenez, Olaberriaren sasoi ona dela «agerian dago». Sasoi erlojuaren aurkakoetan erakutsi duela esan du, baina iraupenekoetan ez dela ondo aritu. «Agian korritzeko moduan zerbait aldatu beharko da», azaldu du. Hala ere, hautatzaileak azaltzen duenez, «Munduko Txapelketan denarako gai dela pentsatzen jarraitzen dut eta berak ere berdin pentsatu behar du. Hilabete falta da eta akats txiki horiek gaindituko ditugula uste dugu».

## Ibarrako tiratzaileek bosgarren egin dute 600 kiloko lehen jardunaldian

Zortzi parte-hartzaile daude txapelketan; Sokarrik eskuratu du lehen postua tiraldi guztiak irabaziz

**Erredakzioa** Ibarra

Ibarrak bosgarren egin du 600 kiloko mailan Goma Gaineko Euskal Herriko Sokatira Txapelketaren lehen jardunaldian. Sokarri taldeak lortu du lehen postua tiraldi guztiak irabazi eta gero. Baionan jokatu da norgehiagoka.

Zortzi talde aritu dira lehen: Ibarra, Sokarri (Arrigorriaga,

Bizkaia), Abadiño (Abadiño, Bizkaia), Amaiur (Amaiur, Nafarroa Garaia), Napurrak (Ezpeleta, Lapurdi), Indarka-Baiona (Baiona, Lapurdi), Basaburua-Imotz (Basaburua eta Imotz, Nafarroa Garaia) eta 6 Conceyos (Asturias, Espainia).

Lau taldeko bi multzotan aritu ziren lehen. Lehen multzoan Abadiño izan zen multzo burua, eta berarekin batera, Ibarra, Sokarri eta 6 Conceyos aritu ziren lanean. Sokarrik lehen postua lortu zuen multzo horretan eta Ibarra hirugarren gelditu zen.

Bigarren multzoan, Amaiur izan zen multzo burua, eta Napurrak, Indarka-Baiona eta Basabu-

rua-Imotz izan zituen aurkari. Hain justu ere, Amaiur izan zen garailek ligaxka horretan.

Bi multzoetako ligaxkak jokatu ondoren, jardunaldiko sailkapena zehazteko norgehiagokak jokatu behar izan zituzten. Sokarri eta Amaiur aritu ziren aurreneko bi postuetarako borrokan, eta bi tiraldiak irabazi zituen Bizkaiko taldeak. Hirugarren eta laugarren posturako, aitzitik, lehia estua izan zuten Abadiñok eta Napurrak. Bi tiraldi on burutu zituzten eta biak irabazi zituzten Abadiñok.

Martxoaren 5ean jokatu dute bigarren jardunaldia, Elizondon (Nafarroa Garaia).



Anoetako Ikastolatik parte hartu zuten xakelariak. HITZA

## 35 neska-mutilek parte hartu dute Eskolarteko Xake Txapelketan

Hiru mailatan lehiatu ziren eta Anoetako Ikastolako ikasleek lortu zuten lehen postua maila guztietan

**Erredakzioa**

Tolosaldeko Eskolarteko Xake Txapelketa jokatu berri dute Tolosan. Eskualdeko 35 neska-mutilek hartu zuten parte, infantil, alebin eta benjamin mailatan banatuta. Aurreko urtearen aldean parte hartzea apur bat gutxitu zen arren Tolosako kultur etxera joan zirenek maila polita zegoela ikusi ahal izan zuten, Tolosako Xake Elkartetik azaldu dutenez.

Infantiletan Anoetako Ikasto-

lako Oier Otxoa izan zen lehena, Orixeko (Tolosa) Danel Intxaurrendoren puntu bereberekin. Lehenak, ordea, desberdintze hobea zuen eta beretzat izan zen urrezko domina. Podioa osatuz Hirukideko (Tolosa) Mikel Aretxaga izan zen.

Alebinetan Anoetako Ikastolako Ekaitz San Sebastianek irabazi zuen, bigarren Iker Artola izan zen, Anoetako Ikastolako hau ere, eta hirugarren Fleming ikastetxeko (Villabona) Inaki Fernandez. Txapelketa bikaina egin zuten hiru hauek besteengandik apur bat gorago daudela erakutsiz. Azkenik, benjaminetan Iraia Otxoa, Beñat Nogales eta Aiora Oteizak, hirurak Anoetako Ikastolakoak, amaitu zuten lehen hiru postuetan.

## Irudia ▸ Elduain



## SAGARDOAREN TXAPELKETA GAIZKI HASI DU ZEBERIOK

Erremonteko Sagarδοaren Txapelketaren lehen partida jokatu zuten asteburuan Zeberio II.ak eta Barrenetxea IV.ak 29-40 galduz Juaristi-Olazar bikotearen aurka. Akatsek galduarazi zuten partida elduindarrari eta bikoteari. 18 akats egin zituzten eta aurkariek bi bakarrik. Hasieratik jarri ziren aurretik eta Zeberio eta Barrenetxeak ezin izan ziren gerturatu. HITZA



13°  
7°

GOIZA LAINTUTA  
ARRATSALDEA LAINTUTA  
BEROENA 14°  
HOTZENA 5°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Irudia** Tolosa



**BERTSOEKIN ETA SARIAREKIN GOZATUZ**

Pasa den ostiralean Hirukidek zazpigarren bertso afaria ospatu zuen. Hasiera batean Bixente Gorostidi egotekoa baldin bazen ere, gaixo aurkitzen zenez, Unai Muñoa eta Anjel Mari Peñagarikano aritu ziren bi ordu luzez Sukalde elkartearen. Bertan,

Hirukideko ikasle, irakasle eta gurasoak bildu ziren eta eurek jarri zituzten abestu beharreko gaiak. Gainera, ekitaldiak balio izan zuen Bai Euskararik eman berri dien saria ospatzeko ere, horrela azaldu baitute Hirukidetik. HITZA

**Agenda**

**DEIALDIK**

- **Tolosa.** Herriko anbulategiaren balizko itxieraren inguruko bilera irekia egingo dute gaur Zahartzaro Duinaren Aldeko Plataformako kideek 20:00etan kultur etxean. «Tolosan osasun zerbitzuak pribatizatzekeo egiten ari diren saiakeraren» aurrean «herri mugimendua» sortu asmoz herriko eragile, norbanako zein alderdi politiko guztiei egiten diete dei bileran parte hartzeko.
- **Ibarra.** Udaleko Kirol sailak ireki du 2011 urterako Kirol Jarduerearako diru laguntzak eskatzeko epea. Eskaearak aurkezteko azken eguna martxoaren 15a izango da. Oinarriak nahiz aurkeztu beharreko agiriak webgunean eskuratu daitezke ([www.ibarrakoudala.net](http://www.ibarrakoudala.net)) batetik, eta bestetik, kiroldegiko bulegoetan ere eskatu ahal dira 08:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 22:00etara.
- **Tolosa.** Inauterietako karroza eta konpartsen lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago. Lehiaketan parte hartu nahi duenak izena eman dezake bai kultur etxean eta baita helbide honetan [www.tolosakoudala.org/inauteriak/](http://www.tolosakoudala.org/inauteriak/).
- **Ibarra.** III. Euskal Herria antolatzekeo bilera egingo dute gaur 19:00etan, Sendi Ekintza elkartearen. Aurten, Euskal Herria eguna berriro ere Ibarren egingo dute, irailaren 17an. Gaur egingo duten bileran egun hori antolatzeko hasiko dira. Herriar guztiak gonbidatu dituzte.
- **Tolosa.** Aiz Orratz-Veleta elkarteak antolatzen duen mozo-ro lehiaketa hilaren 26an izango da, Emeterio Arreseko Harizpe jubilatutako elkartearen. Lehiaketan parte hartzeko epea hilaren 25a, ostirala, bitarte

egongo da zabalik. Izena Aiz Orratz-Veleta elkartearen eman behar da, Rondilla kalea 46 helbidean, 19:00etatik 20:30etara.

**ERAKUSKETAK**

- **Tolosa.** *Jeiki, jeiki* erakusketa Aranburu jauregian martxoaren 20a bitarte.
- **Tolosa.** Wayang Goleken Indonesiako txotxongiloak ikusi daitezke martxoaren 13a bitarte TOPIC-en.
- **Tolosa.** Gko galerian Mixmedia erakusketa ikusi daiteke auzolaren 2a bitarte.

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Tolosa.** Bronte Cecilia, Korreo Kalea 20. 943 67 60 13.
- **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Agurrak**



**Urte askoan!**  
**Oier Oreja Zubelzu (Alegia).** Gaur betetzen ditu 4 urte. Zorionak aitona-amoneta eta familia guztiaren partetik.

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO** hitza info  
bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**  
(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)  
[www.leitzaldea.hitza.info](http://www.leitzaldea.hitza.info)

eraman/bidaliz izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behean, atzea - 20400 Tolosa

beharezkoa da datu guztiak betetzea

•Izen-abizenak: \_\_\_\_\_ •NA: \_\_\_\_\_

•Lanbidea: \_\_\_\_\_ •Jaioteguna: \_\_\_\_\_

•Helbidea: \_\_\_\_\_ •Herria: \_\_\_\_\_

•P.K.: \_\_\_\_\_ •Tel.: \_\_\_\_\_

•Posta elektronikoa: \_\_\_\_\_

•Kontu zenbakia: